

Ezintasunaren kronika

Joseba Agirretxea

EAJko diputatua
Espainiako Kongresuan

Artikulu hau idazteko gonbita jaso nuenean, burura etorri zitzaidan lehenbiziko gauza zera izan zen:

«Zer konta dezaket, hemen minutu batetik bestera dena aldatzen da eta», baina bat-bateko hausnarketa ximple horren ondoren, konturatu nintzen ezetz, Lanpedusakok zioen bezala, guztiak berdin jarraituko duela, kontrakoa dirudien arren.

Hauteskunde gauetan, emaitzak eskuetan esan nuen —eta nire inguruakok lekuko— hauteskundeak errepikatzea beste erremediorik ez zela izango, ez nuela ikusten inongo hitzarmen edo ezberdinen arteko akordioak posible izango zenik. Eta bi hilabeteren ondoren gauza bera pentsatzen jarraitzen dut. Horrek ez du esan nahi, inondik inora, besterik gerta ez daitekeenik, nola ez bai! Baina susmoa, itxura guztien arabera, egia bihur daiteke.

Hauteskuendeen emaitzak Espainiako Kongresuan mosaiko aldrebe-sa aurkeztu zigun, deabruen batek nahita jositako tapiz baten antzera, zeinean gehiengoa lortzeko PP edo PSOE edota Podemosen parte hartzea nahitaezkoa zen, euren arteko konbinaketa ezberdinen arabera; eta gero besteok geunden, indar eta presentzia handiagoarekin edo txikiagoarekin (C's, ERC, DiL, EAJ eta mistokoak). Argi zegoen, bada, PPk garaile zen neurrian eman beharko zukeela lehen urratsa, baina Felipe Espainiako erregeak gobernua osatzeko gonbita egin zionean, hark ezezkoa eman zion «oraindik ez daukat beharrezko gehiengoa» esanaz. Horrela, eta Rajoy eta PPreen ezusturako —eta haserretako—, bigarren errendan Borboikoak Pedro Sanchez eman zion aukera, eta hark hartu. Tartean, Podemosek bere eskaintza (exijentzia?) egin zion PSOEri, ministerio banaketa eta guzti, era nahiko ezohikoan.

Beste batzuk, ordea, hasiera-hasieratik esan genuen gure asmoa zein zen, eta zer uste genuen: euskal gaiet

bere agendan era serio eta aurrerakoi batean arreta egiteko prest zegoenarekin «hitz egiteko prest» geundela, eta gero, erantzunaren arabera, ikusiko genuela zertan konprometitzen ginen. Eta horrek horrela dirau gaur arte. Argi zegoen PPrekin ez zegoela inongo asmorik ez aukerarik, ez baitzuen inongo berne eta aldaketarik eskaintzen, eta bere jarrera gure antipodetan azaltzen zen, bai autogobernuaren garapenean (zentzurik zabalenean zein estuenean), Euskadiren bakegintza eta normalizazio alorrean, zein alor sozioekonomikokoa.

Bestalde, alderdi sozialistak bere gonbita egin zigun, eta argi dago beraiekin hitz egin dugula behin baino gehiagotan, baina artikulu hau idazten dudan unean oraindik ez dugu gure proposamenaren erantzunik beraien partetik. Edozein kasutan, bitarte horretan «ponpaz eta zirkunstantziak» betetako akordioa sinatu du PSOEk Albert Riveraren C's-ekin. Horrek asko urruntzen gaitu, dudarik gabe.

Euskal gaien defentsa gure betebeharra, konpromisoa eta baldintza da. Hala agindu genuen hauteskunde kanpainen eta hala adierazi dugu

beti. Dimentsioak neurtu behar diren arren, eta jakin zer jarri behar den negoziatio mahai bakoitzean, lehenik eta behin errespetua eta aintzakotzat hartzea eskatzen dugu. Gure balioa, ez gehiagokoa, baina ezta ere gutxiagokoa. Horregatik, gure «agendan» argi izan dugu, ez bakarrik gurekin negoziatia daitekeena, baizik eta besteekin negoziatzen dutenean (adibidez PSOEk C's-ekin) zer eduki behar duten kontuan, gero guregana hurbiltzeko.

Aukera on bat izan zitekeen lege-gintzaldi hau gure naziotasunaren onarpenerako, erabakitze eskubidea bermatzeko, euskal eskuduntzak sendotu eta berrantzezina uxatzeko, gure pentsio sistema propioa osatzeko, kartzela politika aldatu eta gureganatzeko, ekonomia alorrean aurrera pausok emateko, murrizketa sozialekin amaitzeko, eta abar... baina badirudi ezerezean gera daitekeela.

Gauzak horrela, zer emango duen inbestidura saioak galdetuz gero, printzipioz ezer ez. Diskurtsoen eszenifikazioa. Eta ez dakit ez den geroari begirako lehen antzezpena izango. Etorkizun hurbilerako Rajoyk bere indar posibleak neurtu beharko ditu, agian bere erretiroak dakar PPrentzako giltza, baina nire uste apalean dagoenok abiadura hartua dauka PSOE berriz atzerako martxa egiteko, eta aukera horretan, Pedro Sanchezen burua ere kolokan legoke. Eta etorkizun luzeago batera begira —hau da, ekainaren 26 aldera—, hauteskunde dinamika batean sartzeko nagikeria handia ikusten dut, baina inork ez badu utxiren bat txisteratik ateratzen, gauzak horrela izatea ezin ekidin.

Ene iduriz, alderdi abertzaleontzat (euskaldun zein katalenentzat) errepikapena ez litzateke alibeterik onena, bigarren buelta itxurako hauteskunde batzuk ez bailirateke egokiak. Gainera, Euskal Komunitate Autonomoko biztanleok berriz urri inguruan beste hauteskunde batzuk izango ditugu, eta jendea aspertu ere egin daiteke, arrazoiz.

Latinez esaten den lez, *rebus sic stantibus*, ikusiko dugu zertzeladaz beteriko egoera honek zer ematen duen, baina interesgarri izatetik aspergarri izatera pasa ote den zalantza daukat.

Ikusiko dugu zertzeladaz beteriko egoera honek zer ematen duen, baina interesgarri izatetik aspergarri izatera pasa ote den zalantza daukat